



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 92. INFORMAZIO BULETINA

> 2014ko Iraila



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Gipuzkoako enpresen partaidetza nabarmena HORIZON 2020ren ETE Tresnaren lehen deialdian

Joan den ekainean amaitu zen HORIZON 2020 programako ETE Tresnara hautagaitzak aurkezteko lehen epemuga. Europako Batzordeak argitaratutako emaitzen arabera, agerian jarri da ETE tresnak enpresen artean, eta zehazki, Gipuzkoako enpresen artean, izan duen onarpen zabala. Hain zuzen ere, 20 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik % 20k jaso dute aurre-onarpena; hala, deialdiaren arrakastaren batez besteko ratioak bikoiztu egin dira.

Europako Batzordeak enpresa arloko I+G politika Testuinguru Programaren hainbat edizioren bidez gauzatu du, eta azken edizio honetan, HORIZON 2020 programaren bidez. Programa horrek enpresei partaidetzarako modalitate berri bat eskaintzen die, ETE tresna izenekoa, eta horrekin Europako ETE-en beharretara egokitzen saiatzen da.

ETE tresnari esker, enpresek eskaerak banaka egin ditzakete. Tresna ETE-en hazkunderako, garapenerako eta nazioartekotzerako potentzial handia duten berrikuntzako proiektuetara bideratuta dago. Tresna honetara aurkeztuko diren proiektuek ideia berritzailea eta sektorearekin edo merkatuarekin apurtzailea den ideia izan beharko dute oinarrian, eta batez ere berrikuntza-jarduerak egin beharko ditu (prototipoen garapena, diseinua, entseguak, egiaztapena, industria-eskualatzea eta abar); dena den, aurreko horiek egiteko beharrezkoak diren I+G jarduerak ere izan ditzakete.

ETE tresnaren lehen deialdian aurkeztutako 2.662 proiektuetatik, Batzordeak 317 proiektu onartu ditu, % 11,9, eta horien artean 115i eman die finantza mailako babesa, guztien % 5,8ri.

Espainiako ETE-ek nazioarteko proiektzioa duten 419 berrikuntza-proiektu aurkeztu dituzte, eta horietatik 39 onartu dituzte (% 9,3), eta gaitasun maila handieneko arloen artean daude Biotech eta Open disruptive innovation; aurretik Italiakoak soilik daude, 436 proiektuekin, eta atzetik, Erresuma Batuko 232 enpresak, Alemaniako 188ak eta Frantziako 167ak.

Autonomia-erkidegoen arabera, Katalunia izan da buruan, bai aurkeztutako proiektuei dagokienez (97), bai onartutakoei dagokienez (19); atzetik Madrilgo Komunitatea, 91 proiektu aurkeztuta eta 15 onartuta. Hirugarren lekuan daude Euskadiko ETEak, nazioartekotze-asmoa duten 40 berrikuntza-proiektu aurkeztu dituzte, eta horietatik 6k lortu dute onarpena. Gipuzkoako ETE-ek 20 proiektu aurkeztu dituzte, 4 onartuta (% 20); Bizkaikoek, 15 proiektu (1 onartuta), eta Arabakoek, 5 proiektu (1 onartuta).

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/programmes/horizon2020/en/h2020-section/sme-instrument>

<http://www.adegi.es/adegi/noticia-enorme-exito-empresas-guipuzcoanas-porgrama-europeo-horizonte-2020-201409/index.php?nav=es>



### > EMUGI-k mugikortasunaren Europako saria 3.000 eta 50.000 biztanle arteko udalen kategorian jaso du

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Elgoibarko Udalari joan den irailaren 22an, eta Mugikortasunaren Europako Astearen ospakizunen harira, saria eman zion. Sari horrekin, EMUGI 3.000 eta 50.000 biztanle arteko udalen kategorian mugikortasun iraunkorraren sustapenerako ekimen onena dela aitortu dute.

Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen sarien helburua da tokiko agintariak animatzea garraio iraunkorra lortzeko neurriak sar eta susta ditzaten, eta herritarrei animatzea ibilgailu pribatuaren alternatibak bila ditzaten.

EMUGI Elgoibarko Udalak sustatutako ekimena da. Udallerrian ohitura iraunkorrangoak sustatzeko Elgoibar Berdea programaren barruan garatu da. Ekimena garatzeko honako hauen lankidetzeta izan du: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) eta Udalsarea21, Jasangarritasunerako Udallerrien Euskal Sarea. Gainera, Euskadiko 2007-2013 FEDER Programa Operatiboan sartutako ekimena da.

Epamahaiak honako alderdi hauek baloratu ditu EMUGIren proposamenetan: auto elektriko partekatuen aparkaleku berria instalatzea Toletxegainen, eta eremu horretan bertan eta Ubitartegainen bizikleta elektriko partekatuen aparkaleku eta birkargarako bi eremu berri egokitzea Kontuan izan da udalerriko hainbat eremutan bizikletak uzteko lekua egokitzea eta autoa partekatuta erabiltzeko sustapen-apustua ere. Horrez gain, ordutegi mugatuan alde zaharrea pertsonak, bizikletak eta autoak batera dabiltzala gogorarazteko informazio-senaileak jarrita, bizikletaren erabilera sustatzea nabarmendu dute, 20 km/h-ko abiaduran ibiltzeko eremua sortzeaz gain.

Kategoriako bigarren saria Miajadaseko Udalak (Cáceres) jaso du, bereziki gazteen artean bizikletaren erabilera sustatzeko ekimen bat dela eta, oinezkoentzako hirigune atsegina sortzeko ahaleginagatik. Brontzeko domina exaequo Villamayorreko Udalari (Salamanca) eta Peal del Becerroko Udalari (Jaén).

*Informazio gehiago:*

<http://www.magrama.gob.es/es/prensa/noticias/el-ministerio-de-agricultura-alimentaci%C3%B3n-y-medio-ambiente-premia-las-mejores-iniciativas-para-fomentar-la-movilidad-sostenible/tcm7-344653-16>

<http://www.emugi.net/>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Seigarren Kohesio Funtsak enpleguan eta Elkarketa Akordio eta Programa Operatibo berrietan duten islan oinarritu du azterketa

Irailaren hasieran egin dute Bruselan Seigarren Kohesio Funtsa. Ekimen horrek, hiru urtez behin, Europar Batasuneko kide diren estatuetako arduradun eta eragile politiko nagusiak biltzen ditu Kohesio Politikak helburuak erdiesteko garaian duen arrakasta ebaluatzeko.

Edizio honetako leloa honako hau izan da: "Inbertsioa enpleguetarako eta hazkunderako: garapenaren eta gobernantza onaren sustapena Europar Batasuneko eskualde eta hirietan". Horren bidez, Kohesio Politikak hazkunde iraunkorrerako funtsezkoak diren arloetan betetzen duen rolaren garrantzia agerian utzi nahi izan dute: berrikuntzak, ETE-ei emandako laguntzak, pertsonen prestakuntzak hobetzeak, gizarteratzeak eta energiak, esate baterako. Horretarako, 2014-2020 aldirako 352.000 milioi euro inguruko guztizko aurrekontua onartu dute.

Hahn komisarioaren arabera, Kohesio Politika da Europako Batzordearen inbertsioen benetako konpromisoa eta politika nagusia. Horrekin lotuta, Batzordeak konpromiso hori berretsi eta Europako eskualde txiroenei babesa emateko hasierako helburua handitu du. Elkarketa Akordioek eta Programa Operatiboek (orain onartze-prozesuan daudenean) Europako benetako ekonomian inbertitzea eta Batasuneko helburu handien alde lan egitea ahalbidetuko dute. Honako hauek dira helburu horiek: enplegua, energia-segurtasuna, ingurumen garbiagoa eta hazkunde iraunkorra.

Horrekin lotuta, Elkarketa Akordioetan (28tik, 16 onartu dituzte) oinarritutako atariko ebaluazioaren arabera, 2014-2020 aldirako, Europako eskualde eta estatuetako inbertsioak honako hauek bideratuko direla baieztatu dute: berrikuntza bultzatzera, ETE-ei laguntzera, enplegua sortzera eta eskualdeen lehiakortasuna eta hazkunde ekologikoa sustatzera.

Foro horretan, gainera, gobernantzaren gaia landu dute. Administrazio eragingarriagoaren eta gardenagoaren ikuspegitik zein baliozko politika makroekonomikoen arlotik gobernantza ona izateko beharra, alegia.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/conferences/6thcohesion\\_forum/index\\_en.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/6thcohesion_forum/index_en.cfm)



### > POCTEFAk zirko-ikuskizun bereziarekin ospatu du 2014ko Europako Lurralde Lankidetzako Europako Eguna

"Parteka ditzagun mugak, gertura gaitezen gero eta gehiago" lelopean, irailaren 21ean egin zuten Europa osoan Europako Lurralde Lankidetzarako Europako Eguna. Ospakizun horren helburua Europako lurralde-lankidetzara arloan erdietsitako lorpenak herritarrei jakinaraztea eta kontzientziatzea izan da.

Ekimen hori dela eta, Europako Lurralde Lankidetzako Programa ugari jarri jarri antolatu dute azken asteotan. 120 ekitaldi baino gehiago antolatu dituzte. Lurralde Lankidetzako 30 programak baino gehiagok hartu du parte eta jarduerak Europar Batasuneko eta alboko beste herrialde batzuetako 100 hiri baino gehiagoan garatu dituzten jarduerak. Antolatutako jarduerak gai eta formatu ugari bildu dute: zirkoko jarduerak, azokak, txangoak txirrinduak, zinema-jaialdiak, musika-kontzertuak, proiektzioak...

Antolatutako jardueren artean, eta gertutasunagatik eta berezia delako, nabarmendu beharrekoa da "*Pirene, mugarik gabeko herri baten kondaira*" izenekoak. POCTEFAren, Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa Operatiboaren, baitan antolatu dute eta mugaz gaindiko lankidetzak dituen onurak erakusten dituen zirko-ikuskizuna da.

Pirinioen osakerari buruzko Pirene kondaira oinarritzat hartuta, zirko-ikuskizun horretan eskualde eta herrialde ugari artistek hartu dute parte.

POCTEFAk antolatutako ikuskizunaren helburua diferentzia aberastasun bihurtzea eta zirko-artearen hizkuntza komunaren bidez mugak eraistea izan da. Ikuskizunak mugaz gaindiko lankidetzaren onurak erakutsi ditu zirko-ikuskizunekin osatutako kabaretaren bidez. Bertan, Pirinioetako bi alboetako artistek hartu dute parte.

Informazio gehiago:

<http://poctefa.eu/proyectosinterior/detalleproyectosinterior.jsp?id=ce72c866-b83e-4d71-a4eb-515974a830f4>





### > HAEK Europako funtsak lortzeko proiektuak prestatzeari buruzko mintegia antolatu du

HAEK, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, mintegi praktikoa antolatu du azarorako. Haren helburua 2014-2020 programazio-aldi berrian Estatuko, eskualdeko, probintziako eta udalerriko mailetarako eskuragarri eta irigarri dauden finantza-tresna guztien inguruko ikuspegi orokorra eta finantzaketa lortzeko proiektu-proposamenak aurkezteko modu onena zein den eskaintzea izango da.

Mintegiaren elementu garrantzitsuak izango dira Europako funts ugariak finantzatutako proiektuen jardunbide onenak eta proiektu onenak prestatzea. Espainiako eskualdeek Kohesio Politikaren 2. helburuaren eta beste programa batzuen baitan egin ditzakete orain (2014-2020).

Mintegi horretan, Europako finantzaketarako hautagai den proiektua garatzeko fase guztiak aurkeztuko dituzte: sorreratik hasi eta aurrekontua prestatzeko eta ezartzeko lanetara arte. Gainera, mintegiak Lurralde Lankidetzarako Europako Elkartearen (LLEE) gaiak landuko ditu. Mugaz gaindiko, nazoz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak errazteko eta bultzatzeko, eta Europako sareak arrakastaz garatzeko tresna juridikoa da.

Jardunaldiak Euskadiko administrazio publikoetako langileei irekita daude (Estatuko, Foru Aldundiko eta tokiko administrazioei) eta Donostiako Kursaal jauregian egingo dituzte.

Izena emateko epea 2014ko urriaren 9an amaituko da.

*Informazio gehiago:*

[http://www.ivap.euskadi.net/r61-vedorok/es/contenidos/evento/jornadas\\_eipa/es\\_def/index.shtml](http://www.ivap.euskadi.net/r61-vedorok/es/contenidos/evento/jornadas_eipa/es_def/index.shtml)



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > **Batzordeak Europako ETE-en funtzionamendua erraztera bideratutako neurriak hobetu nahi ditu**

“Small Business Act” edo Europako enpresa txiki eta ertainen legea izenekoak Europako ETE-en hazkunde eta lehiakortasun jarraiturako aldeko baldintzak sortzea du xede. 2008ko ekainean onartu zuten eta Europa 2020 Estrategiaren baitan kokatuta dagoen ekimenak Europan ETE-ek hazteko eta berritzeko duten potentziala hobeto ustiatzea ahalbidetu beharko lukeen testuinguru estrategikoa finkatzen du. Helburu horrekin, “Small Business Act” komunitateko eta Estatuko politikak zehaztera bideratutako hamar printzipiotan eta aplikatzeko neurri praktikoetan oinarrituta dago.

Testuinguru horren baitan, eta sei urtez funtzionatzen egon ondoren “Small Business Act” hobetzen laguntzeko asmoz, Europako Batzordeak berrikusketa-prozesua jarri du abian. Alde batetik, aurrez aplikatutako neurriak eta proposamen berriak biltzen dituen kontsulta-dokumentuaren prestaketa biltzen du horrek eta, bestetik, dokumentu horretan jasotako ekimen berriei buruzko iritzia jasotzera bideratutako kontsulta irekia da.

Kontsulta publikoak interesdun guztien lankidetzari handiagoa jaso nahi du (ekintzaileena eta enpresa-erakundeena barne) Batzordeari SBA etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko egokia izaten jarrai dezan bermatzen laguntzeko.

Batzordeak egindako kontsulta publikoek hamabi asteko iraupena izango dutenez, kontsulta 2014ko abenduaren 15ean itxiko da.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-14-975\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-14-975_es.htm)

[http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/small-business-act/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/small-business-act/index_en.htm)



### > Europako eskualdeko politikak datorren hilabetean ospatuko ditu "OPEN DAYS" izenekoak

Urriaren 6tik 9ra bitartean egingo da Eskualdeen eta Hirien Europako Asteko 12. edizioa, OPEN DAYS ere deitzen zaiona. Oraingoan, aukeratutako leloa "*Elkarrekin hazten - Jendearentzako inbertsio adimentsua*" izan da eta eskualdeko politikako lehentasunak (duela gutxi 2014-2020rako Europako aurrekontuaren arabera adostutakoak) aplikatzen izandako lehen esperientziei buruzko hausnarketa egiteko aukera eskaintzen du.

OPEN DAYS 2014 izenekoan programa hiru lehentasun tematikoren inguruan egituratuko da:

- Eskualdeko estrategiak lotzea: espezializazio adimentsua, agenda digitala, ETE-ei laguntza, karbono-igorpen gutxiko ekonomia, prestakuntza eta gizarteratzea, hiriko dimentsioa.
- Gaitasunaren garapena: elementu eta tresna berriak programaren kudeaketan (finantza-ingeniariaritzaren errendimendu-markoaren ebaluazioa, elkarrekin akordioak).
- Lurralde-lankidetzaren programa paneuroparren belaunaldi berria (INTERREG, URBACT, ESPON, INTERACT), nazioarteko lankidetzaren programa.

Eskualdeko eta hiriko politikako urteko plataforma gisa, OPEN DAYS izenekoek esperientzien trukea bultzatu eta tokiko, eskualdeko eta mugaz gaindiko gobernantzari eta Europako funtsen kudeaketari buruzko eztabaidak sortuko dituzte. Profesionalen arteko trukeak mundu akademikoak egindako ekarpenekin uztartuko dira.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/conferences/od2014/index.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2014/index.cfm)





### > "Europa Creativa" (Europa Sortzailea) programa 2014ko Zinemaldian izan da

Europa Sortzailea da kultura eta sormen arloko sektoreak bultzatzera bideratutako 2014-2020 aldirako Europako Batzordearen programa.

Programa Donostiako Zinemaldiko aurtengo edizioan izan da. Zinemaldiaren 2014ko edizio honetan, Europa Sortzailea eta, zehazkiago esanda, MEDIA azpiprograma, ikus-entzunezkoen industriari babesa ematen diona, presente egon da eta jaialdian antolatutako jarduera ugariri babesa eman dio. Honako hauei, adibidez:

- "Topografiak. Beste hizkuntza batzuetan egindako filmografien ikusgarritasuna, koprodukzioa eta nazioartekotzea". Herrialde eleaniztunetako edo gutxiengoak duten hizkuntzak dituzten herrialdeetako profesional eta ordezkarien arteko topaketa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Euskadiko Europa Creativa Desk Media programarekin elkarlanean lan-jardunaldia antolatu zuen. Bertan, besteak beste, toki hauetako erakunde mailako ordezkariak eta kultur eragileak hartu dute parte: Euskadi, Finlandia, Suitza, Flandes, Islandia eta Letonia.
- MEDIA programak 26 film parte-hartzailerik emandako laguntza. MEDIA programak, 2 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoarekin, aurtengo Donostiako Zinemaldian kategoriatan ugarietan lehiatu duten 26 filmari laguntza eman die.
- MEDIAren standa. Aurreko edizioetan bezalaxe, Industry Club-ek MEDIA-Europa Creativaren laguntza jaso du. Euskadiko Europa Creativa Desk MEDIAren bulegoak bermatu du programa horrek guzti horretan presentzia izatea. Bertan, akreditazioa zuten profesionalak deialdiei, emaitzei, prestakuntzari eta abian diren proiektuetarako aholkularitzari buruzko informazio guztia izan dute eskuragarri.
- MEDIA Bruselaren presentzia. Zinemaldian, bestalde, honako hauek ere izan dira: Lucia Recalde Langarica, MEDIA – Europa Creativa azpiprogramako unitateko zuzendaria; eta Emmanuel Joly, policy officer – Creative Europe
- Informazio-saioak: antolatutako jarduerekin eta informazio-standekin batera, Europako programekin lotutako informazio-saioak ere egin ditugu. Saio horietan, bertaratutakoek Europako programak aurkezteko baldintzak, erabilitako irizpideak eta abar ezagutu ahal izan dituzte. Joandakoek, gainera, beste ekoizle batzuen benetako esperientziak eta adibideak ezagutzeko aukera izan dute.

Informazio gehiago:

<http://www.europacreativaeuskadi.eu/>

<http://www.sansebastianfestival.com/index2.html>



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > **The EU in the world 2014. A statistical portrait (Eurostat)**

Europar Batasuneko estatistika mailako argazkia eskaintzen du argitalpenak, munduarekin alderatuta, eta zehazki, G-20 taldea osatzen duten herrialdeekin alderatuta. Txosten horrek Eurostaten "Europa zenbakitan" etengabe eguneratutako onlineko argitalpenen informazioa osatzen du, baita Europako bulego estatistikoaren eskualdeko urtekaria ere.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-EX-14-001/EN/KS-EX-14-001-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-EX-14-001/EN/KS-EX-14-001-EN.PDF)

### > **Berrikuntza eta hazkunde iraunkorra lortzeko bidean (Panorama aldizkaria, 50. alea)**

Europako Batzordearen Eskualdeko eta Hirigintzako Politika Zuzendaritza Orokorrak argitaratutako Panorama aldizkariaren 50. alean Johannes Hahn komisarioarekin egindako elkarrizketa nabarmendu dute. Elkarrizketan, lehen agintaldian Europako Kohesio Politikak izan dituen aldaketa nagusiak aztertu dituzte.

Orain gutxi argitaratu den Europako Kohesioaren 6. txostenari buruzko artikulu zehatza ere badakar, eta bertan aztertzen dute Kohesio Politika zein modutan den lagungarri Europa krisi ekonomikotik ateratzeko, eta hazkunde berritzailea eta ekologikoa sustatzen duela.

2014-20 aldi berriaren programazio-prozesuak ere badu lekua aldizkariaren ale honetan. Elkartearen Akordioen azken eguneraketa Grezian oinarrituta dago.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag50/mag50\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag50/mag50_en.pdf)



### > Europako lehiakortasunari buruzko txostena, 2014. Enpresei hazten laguntzen (Europako Batzordea)

Europako lehiakortasunari buruzko txostenak Europar Batasuneko industria-lehiakortasunean eragiten duten faktoreak aztertzen ditu, eta Europako manufaktura-industriren errendimenduaren ikuspegia eskaintzen du, Europar Batasuneko industria-politikaren helburuak ebaluatzeko datuetan oinarritutako adierazleak eskaini nahian.

Edizio honetan, txostena enpresen hazkundearen motor garrantzitsuenetako batzuetan oinarritzen da: finantziarako sarbidea, ETE-en nazioartekotzea, administrazio publikoaren eragingarritasuna eta enpresa-ziklo osoko berrikuntza. Beste kapitulu batean, energia-kostu eta eraginkortasuna landu dute, enpresek aurre egin beharko diete horri, Europako enpresa-egituraren lehiakortasunaren azpian baitago.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/DocsRoom/documents/6706/attachments/1/translations/en/renditions/native>